



## Donejakue Bidea

# ZIORTZAKO KOLEGIATA

Aitziber Amas

**X. eta XI. mendeetan Santiagora joaten ziren erromesek Bizkaiko kostaldeko galtzada hori erabiltzen zuten, Lea-Artibai eskualdeko haranen edertasunaz gozatuz. Santiagorako bide gogor horretan, Ziortza zeukaten zain, bidaian aurki zitzaketen ospitalerik onenetako bat. Ibilbidean aurkituko ditugun landa-eremuko eliza txikiak garai horretakoak dira.**



Ibilbide Laburreko bidezidor zirkular hori Bolibar udalerriko plazan hasten da. Simon Bolibar Venezuelaren askatzailearen arbasoak bertan jaio ziren. XI. mendean, leku hori Ziortzarekin lehian aritu zen Oiz mendiaren iparraldeko isurialdearen kontrolagatik. Azkenean, Ziortzak Bolibar beretu zuen eta kolegiata bihurtu zen. XIV. mendean hala Bizkaiko jaunek nola Gaztelako erregeek beraren alde egin zuten, Bolibarko lurak, urak eta mendiak emanez.

Bolibarko plazan, XVII. eta XVIII. mendeetan eraikitako Santo Tomas elizatik urrutien dagoen lekuan, "Ziortzara doan bidarria" dioen kartel bat eta ibilbideari buruzko informazio-panel bat ikusiko ditugu. Ezkerretara joko dugu, Markola ibaiaren gaineko zubira eramango gaituen kale batetik. Zubiaren beste aldean Ziortzara igotzen den errepidea aurkituko dugu. Errepidea gurutzatu bezain laster, bidezidor harriztatu bat hartuko dugu. Donejakue Bideko galtzada zahar horretan XVI. mendeko gurutze-bide baten

hondarrak daude. Antzina bide hori egiten zuten erromesak hortik igotzen ziren Ziortzako kolegiatara. XX. mendearen hasieran, gaur egungo errepidea egin zenean, sastrakek apurka-apurka estali zuten galtzada, eta 1982ra arte ez zen aurkitu eta zaharberritu.

Galtzada amaitzen den lekutik Ziortzako kolegiata ikusten da. Oiz mendiaren iparraldeko magalean dago eta Euskadiko Monumentu Nazionala da. Monasterioaren inguruan honako instalazio hauek daude: XV. mendeko eliza bat (estilo gotiko errenazentistakoa), XVI. mendeko klaustro bat, eta beste eraikin batzuk, hala nola abadearen etxea, kolonoen etxea, jantokia eta ostatua (lehengo ospitalea). 1954an, sute batek eraikin horietako batzuk erre zituen. Gaur egun bertan dagoen eraikin berria kiskalitakoa berregitean sortu zen.

Ziortzakoa Bizkaian dagoen kolegiata bakarra da. Erdi Aroan eta Errenazimantuan, garrantzi handiko lekua izan zen Santiagora kostaldetik doan bidean. Gure

bidea Kalbarioko hiru gurutzeen albotik pasatzen da, elizaren eta kalonjeen etxearen artean dagoen arku baterantz. Arkuan, atzaparretan burezur bat daraman arrano baten erliebea dago, antzinako abatetxearen fundazioaren oroimenez.

Kolegiata utzi eta oroigarri-dendaren ondoan hasten den bidezidorretik joango gara, PR adierazten duten marka zuri eta horiei jarraituz. Luze gabe, pinuz eta hurritzez inguratutako bidezidor bat hartuko dugu, ibar bateraino. Hor, zubia zeharkatu eta aurrerajarraitubehar dugu, Gontzugarai baserriraino. Baserria eskuinaldean utzi eta, zementuzko pista batetik, Markina eta Munitibar lotzen dituen BI-2224 errepedera jaitsiko gara.

### Santa Luzia basiliza

Eskuinetara joango gara. Berehala, ezkerretara jo eta auzo-bide bat hartuko dugu. Aldapa gogorrekoa da eta Gerrika auzoraino doa. Bidearen ertzean, intxaurren ondoren, Santa Luzia basiliza aurkituko dugu. X. mendean eraiki zuten, eta eskualdeko zaharrenetako bat da. Hiru argizuloko leiho bat dauka, mozarabiarren tradiziokoa. Barrualdean hiru irudi daude: Santa Luzia, San Antonio eta Ama Birjina Sortzez Garbia.

Garai batean, basiliza hori eliza izan zen eta, tradizioak dionez, bertan sortu zen Ziortza. Izan ere, diotenez, Bizkaiko pertsonarik garrantzitsuenak bertan bilduta zeuden kolegiata sorrarazi zuen elezaharra gertatu zenean.



### Andra Maria Magdalenaren basiliza

Errepidean aurrera eginez, Gerrika auzora iritsiko gara. Auzoa osatzen duten baserrietako batzuk eskualdeko zaharrenak dira. Auzoko sarreraren ondoan, sartu beharrean, eskuinetara doan hormigoizko bide bat hartuko dugu, larre eta pinu artean, baserri multzo baterantz. Lehengo landa-eskola ezkerrean utzi, eta asfaltatutako bide batetik jarraituko dugu. Eskuinaldean Andra Maria Magdalenaren basiliza aurkituko dugu. XV. mendekoa da, estilo gotikokoa. 1988an nahita erre zuen norbaitek, eta gero zaharberritu egin zuten. Orduan eraiki zen orain daukan ataria.

Baselizatik ikuspegi panoramiko zoragarria dago.

Hormigoizko bidetik bidegurutzera itzultzean, Zeinka auzora iritsiko gara, eta ezkerretara joko dugu, PR bidezidorraren seinalei jarraituz. Orduan, eukalpto gaztez inguratutako bidexka batetik abiatuko gara. Landa eta larre artean behera eginez, pinturazko markek hurbil dagoen pinudi batera eramango gaituzte. Gaur egun erorita dagoen Zugadia baserriraino jaitsiko gara. Hortxe, Bolibar udalerraren seinalea aurkituko dugu bidegurutze batean. Bidezidorrean behera jarraituko dugu, ezkerretarantz, abiapuntura iritsi arte. ■

### LA LEYENDA DE LA COLEGIATA DE ZENARRUZA

Según unos documentos archivados en el monasterio riojano de San Millán de la Cogolla, el 15 de agosto del año 968, día de la Asunción, mientras los vecinos escuchaban misa en la ermita de Santa Lucía de Gerrikaitz, apareció un águila coronada, que tomó entre sus garras una calavera del osario cercano y la llevó volando hasta el otro lado del valle. La depositó en un matorral, señalando así el lugar donde años después se levantaría el complejo religioso de Zenarruza. Hasta 1994 la denominación dada a Zenarruza fue la Colegiata, es decir, estaba regida por un abad. En octubre de 1954 se produjo un incendio que destruyó el antiguo hospital de peregrinos, la casa del abad y algunas estancias próximas al claustro. A partir

de 1994, al instalarse los monjes cistercienses procedentes del monasterio navarro de Santa María de La Oliva, Zenarruza pasa de ser Colegiata a convertirse en Monasterio. ■



### DATU INTERESGARRIAK

#### Nola heldu:

- Autoa: Bilbon A-8 autobidea hartu, lurretan irten eta N-634 errepedetik jarraitu, Donostiarantz. Gero, ezkerretara jo, BI-633 errepedetik, Iruzubietako bidegurutzera iritsi arte. Azkenik, ezkerretara jo, BI-2224 errepedetik, Ziortza-Bolibarreraino.
- Garraio publikoa: Bizkaibusek geralekua dauka Iruzubietako bidegurutzean, Bolibarren erdialdetik 2 km-ra.

**Iraupena:** 2 h.

**Luzera:** 7,100 km.

**Zailtasuna:** txikia-ertaina.

**Ibilbide mota:** kulturaren eta paisaiaren arlokoa.